



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

PRENSA OHARRA

800 urte bete dira Durangaldea Bizkaiko Batzar Nagusietan sartu zanetik

- **Gerediaga Elkartek, Batzar Nagusien, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Durangoko Mankomunidadearen kolaborazioagaz, hainbat ekitaldi antolatu dauz efemeridea ospatzeko.**

Bilbon, 2012ko abenduaren 19an

Abenduaren 29an 800 urte beteko dira Durangaldea Bizkaiko egitura politikoan sartu zanetik. 1212an, Alfontso VIII.a Gaztelako erregeak Diego López Harokoa II.a Bizkaiko Jaunari emon eutsazan Durangoko lurak, azken horrek erregeari Navas de Tolosako bataila historikoan emon eutsan laguntzea eskertzeko. Gertakari horren ondorioz, Durangoko Merindadeko lurraldea Bizkaian integretan hasi zan. Gerediaga Elkartek modu berezian gogorarazoko dau efemeridea; izan be, Bizkaiko Batzar Nagusien, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Durangoko Mankomunidadearen kolaborazioagaz, aitatutako alkarteak gertakaria gogoratzeko ekitaldi-egitaraua prestatu dau. Modu horretan, abenduaren 27tik 29ra bitartean, musika eta antzerki ikuskizuna eskainiko da, Durangaldeko historiaren gaineko liburu bat aurkeztuko da eta bi urtean behingo “Durangaldeko Teila” saria Iñaki García Camino historialariari emongo jako.

Gertakariaren garrantzia dala-ta, eta kontuan eukinda, gainera, egun berean Durangoko Merinalde Eguna be ospatuko dala, antolatzaileek Bizkaiko Batzar Nagusietako Bilboko egoitza aukeratu dabe gaur, egitaraua aurkezteko. Ekitaldian honeek egon dira: Ana Madariaga, Bizkaiko Batzar Nagusietako lehendakaria; Miren Dobaran, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendaria; Oskar Zarrabeitia, Durangoko Mankomunidadearen presidentea; eta Nerea Mujika, Gerediaga Elkartearen presidentea. Bertan, 1212an eskualdearen norabide politikoa finkatu eben gertakarien pasarte labur bat antzeztu da.

Oroitzapenezko ekitaldiak datorren egunean hasiko dira, abenduaren 27an, 19:30ean, Etxebarriako San Agustin eleizan; bertan, omenaldia egingo jake Durangoko kondeei. Zaragozako “Los Navegantes” konpainiaren eskutik, 1212ko gertakarietan oinarritutako “Duranguesado: cruce de caminos” (“Durangaldea: bidegurutzea”) izeneko musika eta antzerki ikuskizunagaz gozau ahal izango dogu. Hurrengo egunean, 19:30ean, Durangoko Kurutzasantu Museoan, Jon Irazabalén “Duranguesado: breve historia” (“Durangaldea: historia laburra”) liburua aurkeztuko da. Eta abenduaren 29an, eguerdiko hamabietan, Gerediagako Juntetxean, Durangaldea Bizkaian integrau zaneko 800. urteurreneko ekitaldi nagusia ospatuko da. Bertan, Iñaki García Caminok, gaur egun Bilboko Arkeologi Museoaren zuzendaria danak, “Durangaldeko Teila” saria jasoko dau, arkeologiaren esparruan egin dauzen aurkikuntzengaitik; izan be, aurkikuntza horreek funtsezkoak izan dira Durangaldearen jatorria ezagutu ahal izateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Se cumplen 800 años de la integración del Duranguesado en las Juntas Generales de Bizkaia

- **La asociación Gerediaga Elkartea, con la colaboración de las Juntas Generales, la Diputación Foral de Bizkaia y la Mancomunidad de Durango, organiza una serie de actos para celebrar la efeméride.**

Bilbao, a 19 de diciembre de 2012

El próximo 29 de diciembre se cumplen 800 años del comienzo de la andadura del Duranguesado en la estructura político-administrativa de Bizkaia. El rey de Castilla, Alfonso VIII, entregó en 1212 las tierras de Durango al Señor de Bizkaia, Don Diego López de Haro II, en agradecimiento por la ayuda prestada en la histórica batalla de las Navas de Tolosa. Este acontecimiento marca el inicio de la integración territorial de la Merindad de Durango en el Señorío de Vizcaya. La efeméride será recordada de una forma especial por la asociación Gerediaga Elkartea que, con la colaboración de las Juntas Generales de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia y la Mancomunidad de Durango, ha preparado un programa de actos conmemorativos. Entre los días 27 y el 29 de diciembre, se podrá ver un espectáculo de música y teatro, la presentación de un libro sobre la historia del Duranguesado y la entrega del premio bianual “Durangaldeko Teila” al historiador Iñaki García Camino.

Teniendo en cuenta la relevancia de este acontecimiento, que además coincide con la celebración del Día de la Merindad de Durango (“Durangoko Merinalde Eguna”), la sede bilbaína de las Juntas Generales de Bizkaia ha sido hoy el escenario elegido por los organizadores para presentar el programa. Al acto han asistido: Ana Madariaga, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia; Miren Dobaran, Directora de Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia, Oskar Zarrabeitia, Presidente de la Mancomunidad de Durango; y Nerea Mujika, Presidenta de Gerediaga Elkartea. En el mismo, se ha teatralizado un pequeño fragmento de los acontecimientos que en 1212 marcaron el rumbo político de la comarca.

Los actos conmemorativos comenzarán el próximo jueves, 27 de diciembre, a las 19:30 h. en la iglesia San Agustín de Etxebarria, en donde se rendirá homenaje a los Condes de Durango. De manos de la compañía zaragozana “Los Navegantes” podremos disfrutar de un espectáculo de música y teatro titulado “Duranguesado: cruce de caminos”, basado en los sucesos de 1212. Al día siguiente, a las 19:30 h. en el Museo Kuruzesantu de Durango se presentará el libro de Jon Irazabal “Duranguesado: breve historia”. Y ya el 29 de diciembre, a las doce del mediodía, en la Casa de Juntas de Gerediaga, se celebrará el acto central por el 800 aniversario de la integración del Duranguesado en Bizkaia. En el transcurso del mismo, Iñaki García Camino, actual director del Museo Arqueológico de Bilbao, recibirá la distinción “Durangaldeko Teila”, un reconocimiento por sus hallazgos en el campo de la arqueología, que han resultado ser claves para conocer el origen del Duranguesado.